

GIDALIBURUAREN 2. FASEA: BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK ETA BOTO TXARTELAK

BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAK

Ikastegi bakoitzeako hauteskunde batzorde honako hauek osatuko dute: dekanu, zuzendari edo hark bere ordezkari izendatutako pertsona, eta batzordeko idazkaria moduan, ikastegiko idazkari akademikoa, barrutiko irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren ordezkari bat eta ikasleen ordezkari bat, ikastegiko batzarreko kideen arteko zozketaz aukeratuak.

Ikastegiaren batean osatuta badute ikastegiko hauteskunde batzordea eta batzorde horretan irakasle eta ikertzaile doktore iraunkorren eta ikasleen ordezkariak badago, gure gomendioa da ordezkari horiek berak izatea hauteskunde batzordeko kide errektorea aukeratzeko hauteskundeetan.

Gogorarazten da, hauteskundearen kideek ezin izango dutela Hauteskunde Batzordearen kide izan.

Irakasle eta ikertzaile iraunkor ez doktoreen eta doktore ez iraunkorren, gainerako irakasle eta ikertzaileen eta teknikariak eta kudeaketako eta administrazio eta zerbitzuaren langileen (TEKAZEL) campuseko hauteskunde batzordeko burua, campuseko errektoreordea izango da (edo hark bere ordezkari izateko izendatzen duen pertsona) eta adineko mahai batez osatuta egongo da. Idazkaritza Nagusiak helaraziko dio campuseko errektoreordeari aipatutako talde bakoitzeko kide nagusien zerrenda. Horien arteko gazteena izango da batzordeko idazkaria.

Barrutiko hauteskunde batzordearen zozketa ikastegiko dekanu edo zuzendariak eta campuseko errektoreak egingo du; zozketa jendakorra izango da eta, beraz, zozketa baino gutxienez 48 lehenago iragarri behar da, ikastegian eta campusean, noiz eta zein ordutan egingo den.

Zein da barrutiko hauteskunde batzordearen eginkizun nagusia?

Errektorea aukeratzeko hauteskundeetan, hauteskunde mahaietako kideak aukeratzeko zozketa eta mahaiak egoki osatu direla egiaztatzea (mahaiaren osaera: mahaiburua, 2 mahaikide eta bi ordezeko) dagokie, baita ere III. gidaliburuan agertzen direnak ere. Mahaien zozketa azaroaren 8a baino lehen egin beharko da.

Nahiz eta Ikastegietan botoa eman, IIP ez doktore iraunkorren eta doktore ez iraunkorren, eta gainerako IIPko sektoreen kasuan hauteskunde barrutia Campusa da.

Gogorarazi nahi dizuegu unibertsitateko kide guztiek **NAHITAEZ ONARTU BEHAR DUTELA MAHAIKO KIDE IZATEA**, baina gai hori gidaliburu honetako hirugarren fasean, azkenekoan, landuko da.

BOTO TXARTELAK

Errektoretzarako hauteskundeetan, boto txartel eta gutunazal zuriak erabiliko dira. Hautagiatza bakoitzeko boto txartela egongo da, eta baita ere boto txartel zuria.

Sektore guztiek boto txartel berdinekin bozkatuko dute.

Horregatik, OSO GARRANTZITSUA da:

1. Mahaietan ziurtatu behar dute boto-emaile bakoitzak bere sektoreari dagokion hautestontzian ematen duela botoa, erroldan agertzen den bezala (irakasle doktore iraunkorra, irakasle ez-doktore iraunkorra eta doktore ez iraunkorra, gainerako irakasleak, TEKAZEL eta ikasleak).
2. Botoak zenbatzen direnean, hautestontziz hautestontzi egitea, botoak inola ere nahastu gabe.